



Nazioarteko Kros ikusgarria Hipodromoan

Urtero bezala, urtarrekin azken igandearekin batera hartu zuen Hipodromoak 57. Nazioarteko Krosa. Hotza, lokatza eta euria lagun, 545 lasterkarik lortu zuten igande goizean helmuga marra zeharkatzea. Aurtengoan, beste behin afrikatik etorritako lasterkariak nagusitu ziren, erraztasun osoz. /4-5. orrialdeak



Aktoreek euren lana primeran burutu zuten eta haur zein guraso, asko gozatu zuten denek larunbat arratsaldeko antzerki emankizunarekin.

Ogro Txikiaren abenturak

Gurera ere iritsi zen Ogro Txikia, larunbat arratsaldean bisitatu zuten Manuel Lekuonako areto nagusia Euskal Herriko zenbait

txokotan ibili ostean. Protagonistak sei urte bete berri ditu, askatasun egarri da eta erantzunik gabeko galdera asko ditu bere baitan. Abenturaz abentu-

ra, bere kabuz egin beharko die aurre bizitzak jarritako oztopo zein bidean sortzen zaizkion beldurrei. Antzerkia nagusiki umeentzat prestatua

badago ere, helduei egindako keinuak begi bistakoak dira eta beraz, haur zein guraso, denek izugarri gozatu zuten antzerki magiko hau ikusten. •

Ostirala musikaz blai

Hiru kontzertu eskaini ziren ostiral gauean Lasarte-Orian. Lehena, Añorgatik etorritako Bi "n" Bi talde gazteak eskaini zuen Jalgi Kafe Antzokian. Bertan punk doinuak entzuteaz gain, kantu lasaigoak ere aditu ziren gitarra akustikoaren laguntzaz. Abend-en berriz, metal doinuak izan ziren nagusi gauerditik aurrera. Lehenik, Hira talde oiartzuarraren kontzertua ikusteko parada izan zen eta ondoren, Mendeku Itxua talde usurbildarra izan zen entzungai. Ostiral gaua musikarekin uztartu zen beste behin Lasarte-Orian. •



Bi "n" Bi taldeak Jalgin emandako kontzertuan punk doinuez gain, kantu lasaigoez gozatzeko aukera izan zen.

ELKARRIZKETA /2

**Julen Altuna
txirindulariarekin
solasean**

ALBISTEA /3

**Bildu, LOHP eta
EAJk aurrekontuen
auziaren gainean
erantzun dute**

KIROLA /6

**Buruntzaldea IKT
taldeko igerilariak
pimerako Liga
burutzen ari dira**



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

20€ MENUA ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

ZATOZ
TXOTX EGITERA!

EGUNERO IREKITA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA
ARTE,
EGUERDI ETA GAUETAN.
IGANDEA ITXITA.

ASTEAZKENETAN "OTXOTEA"

ENKARGUZ ESKATU DAITEZKEENAK:
BAKAILUA SALTSAN
WAGYU TXULETAK
SAHIESKIA

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxe: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

Julen Altuna Txirrindularia

‘Erasorako jarrera barneratua dut’

Neguko pista denboraldia bukatuta, errepidean murgilduko da buru belarri txirrindularia

Umiltasunez, baina era berean esaten duenez ziur min-tzo da Julen Altuna, Fullgas taldeko ziklista. Urteko helburuak karreterako denboraldian jarrita baditu ere, pista denboraldian zoragarri aritu da. Lehen urtekoa izan arren, 10 probaz osatutako Neguko Challengean 9. postua eskuratu du. Gipuzkoako Pista Txapelketan berriz, kukuak oker jo zion eta ezin izan zuen mailarik onena eman erdi gaixo aritu baitzen.

Jon ALTUNA EGITEGI

Zer moduz ibili zara Gipuzkoako Pista txapelketan?

Ez nahi bezain ondo egia esan, erdi gaixo egon bainintzen. Egun pare bat jan gabe igaro nituen eta ez nintzen indar askorekin aurkitu.

Ekipoak, aldiz, gerra eman zuen ohi duen modura. Taldeko txirrindulari guztiok saiatzen gara, baina gehienak 1. urtekoak garenez, ikuskizun pixka bat ematen eta ondo pasatzen ahalegintzen gara.

Eta Challengean?

Personalki oso ondo ibili naiz, nik uste baino askoz hobeto. Udan lesioa izan nuen eta lehenengo urtea izateko primeran aritu naiz, oso gustura. Batez ere lehenengo probatan aritu nintzen ondoen. Lotsagabe erasotzen nuen, eta proba ezberdinetan puntu batzuk bilduta, azkenean bederatzigarren postuan amaitu nuen Challengea.

Pista ala errepidea nahiago?

Errepidea nahiago dut, baina pista ere gustatzen zait. Jende askok torturatzat hartzen du daukan peralte nabarmenagatik. Oso egokia da pista neguan entrenatzeko eta zirkulak ez dugu egiten gure taldean. Aurrendenboraldian ariketa fisiko edota korrika asko egin ez dugunez, pistako entrenamenduen bidez prestatu gara batik bat karreterako denboraldiari aurre egiteko.

Pista seguruagoa al da?

Pista segurua da ikusten baduzu inguratzen zaituzten txirrindulariek egoera kontrolpean dutela. Izan ere, hasierako urteetan infantilak beldur dezenterekin aritzen dira edota azkarregi nahi izaten dituzte helduak imitatu.

Egia esan, badut pistarekin anekdotaren bat... 1. urteko kadetea nintzela belodromoan erori eta klabikula hautsi nuen, baina ez diot beldurrik hartu. Gerora, beste behin hautsi dut lepaustuia.

Aurretik beste kirolen bat egin al duzu?

Bai, futbolean aritu nintzen, atezain. Nik betidanik egin izan ditut kirol dexente: Pilota, atletismoa... Bizikletan berriz, famiatik datorrik afizioa, udaran aitarekin buelta batzuk ematera joaten nintzen txikitan eta aukera badugu Tourra ikustera joaten gara.

Zer dauka txirrindularitzak beste kirolek ez dutena?

Euskal Herrian eta Gipuzkoa mailan bereziki oso mundu polita eta erakargarria da txirrindularitza, txirrindularion artean dagoen giroa oso ona da, maila guztietan esango nuke. Tropeleko giroa bikaina da, denboraldia amaitzean “pelotoiko afariak” egiten ditugu eta sekulako giroa izaten da.

Batez ere esango nuke elkarrekiko errespetua dagoela. Egon zaitezke aurkari batekin lehia betean belodromoko 20 itzuliko lasterketan, baina bukatu orduko berarekin hitz egiten ari zara. Gainontzeko taldeetako txirrindulariek dagoen giroa aparta da, beste kirolekin ez dut hori ikusten.

Jendeak uste du erotuta zaudetela. Errepideko arriskuak, sufrimendu izugarria, etxetik urrun lasterketak... Merezki al du sakrifizio horrek guztiak?

Nik uste baietz, merezi duela. Oso kirol sufritu da, egia da, eta denbora ondo antolatuta beharra duzu. Askotan ezin dituzu egin gustura asko egingo zenituzkeen gauzak, eta bizitzan denbora asko kentzen dizun kirola da txirrindularitza. Baina nik uste aukera ona dela, batez ere taldean daukagun giro onagatik

“Txirrindulari guztiak dopatuta doaz” edota “Ezin da itzuli handirik bukatu makarroiak soilik janez” bezalako esaldiek zer sentipen sortzen dizkizute?

Lagun berriak egitean, eta ziklista naizela esaten diadanean, beste aurpegi bat jartzen didate. Ez dakit txantxetan edo serio egiten duten, baina kasu



Julen Altuna txirrindularia Donostiako belodromoko peraltean, Gipuzkoako Txapelketako proba batean.

“Lesioak tarteko, ez dut oraindik nire mailarik onena emateko aukerarik eduki”

hori eman izan zait. Automatikoki gai hau ateratzen dute, topikoz blai.

Kirol hau oso garbia da, garbiena dela esatera ausartuko nintzateke, batez ere kontrolatuena dagoelako. Beste kirolekin halako kontrolak egingo balituzte...

Zein paper betetzen duzu, zuk, taldean?

Oraindik ez dauzkagu bakoi-

tzaren rola zehaztuta, baina badaukagu taldean txirrindulari pare bat ondo ibiltzen direnak. Ni, haiei laguntzen saiatzen naiz, baina gero egingo lanaren esker ona jasotzen dut eta horrek ere balio du.

Personalki ez dut orain arte zorte gehiegi eduki lesioekin eta agian, ez dut nire burua nabarmentzeko aukera eduki oraindik.

Zure Taldearekin gustura? Betidanik nabarmendu izan da Donosti-Berri taldekideen artean dagoen elkartasuna, daukazuen giro onarengatik. Zein da sekretua?

Oso ondo portatu dira nirekin hasieratik. Segituan egin nituen lagunak, eta orain, jada ez gara txirrindularitzako lagunak bakarrik, orain benetako lagunak gara. Entrenatzaile eta zuzendarekin ere oso gustura nago. Taldeko afariak egiten ditugu noiz-behinka taldea indartzeko eta orokorrean, talde berezia osatzen dugula esango nuke.

Zein dira zure aurtengo helburuak?

Esaten dutenez, kadeteetatik jubiletara salto nahiko handia dago, baina hala ere, dena utziko dugu errepidean. Izan ere, ni konturatu naiz lasterketan gerra ematea ez dela zaila.

Orain arte, kadete mailan erdi-erkituan ibili naiz, baina aurtengo pistan izan dudana jarrera aldaketa honekin jarraitzea dut helburu. Lehen, zentzu horretan nahiko lotsatia nintzen eta orain berriz, lotsagabe aritzen naiz. Beraz, aurtengoan tropelean gerra ematen eta lasterketa amaitzen saiatuko naiz. •

Gipuzkoako txapelketa bikaina

Herriarrak bikain aritu ziren urtarrilaren 21 eta 22an Donostiako Antonio Elorza Belodromoan burutu zen Gipuzkoako Pista Txapelketan. Kadete mailan, Andoaingo taldean aritzen den Jon Ander Unanuek brontzezko domina eskuratu zuen.

Bazpiko txirrindulariak ere bikain aritu ziren, lehen

hamarren artean bi txirrindulari sartu baitzituzten eta taldekako jazarpen proban bigarren postua eskuratu baitzuen Boris Campoo, Xuban Errazkin eta Luis Sobejanok osatutako hirukoiteak.

Junior mailan, Fullgas taldeko Julen Altunak 19.

postuarekin konformatu behar izan zuen. •

Aurrekontuak dira Udalaren lehentasuna

■ Bildu, EAJ eta LOHP alderdiek PSEri erantzun diote ■ Batzarrean ez zen eztabaidarik izan

Lehenengo astean PSE-EE alderdiak 2012. urteko aurrekontuei buruz egindako adierazpenei erantzun zioten Bildu, EAJ eta LOHP alderdiek ostiralean egindako prentsaurrekoan.

Estixu Alkorta Ogasun sailleko buruak azaldu zuenez, "Udaletxean lan egiten hasi ginenean, gure lehentasuna 2012 urteko aurrekontuak lehenbailehen aurkeztea izan zen. Izan ere, 2008 urteik ez dugu aurrekonturik izan".

"Lan egin dugu sail bakoitzean aurrekontuak kuadratzeke. Falta dena dokumentu teknikoa egitea da" jakin arazi zuen Alkorta.

EAJko zinegotziak adierazi zuenez, momentu honetan ogasun departamenduak eta oro har udaletxe guztiak langarga handia du aurreko urteetan eraman den kudeaketa txarraren ondorioz eta orain dauden giza-baliabideekin ez litzukete aurrekontuak garatu ahal izango. "Hori dela eta, Udalez aparteko laguntza eskatzea behartuta ikusi gara, baina, hau kontu-hartzailetzako departamendurekin batera elkarlanean arituko da" azpimarratu zuen.

Pablo Barrio alkateak onartu zuenez, "laguntza puntuala

izango da eta Udalaren egungo egoerari erantzuten dio".

Kudeaketa eza

Honetaz gain, Alkortak gogoratu zuen, "PSE-EEK gure kudeaketa ezari buruz hitz egiten du. Baina 2010ean Zaballos ez zen aurrekontuak negoziatzeko gai izan. Gainera, 2010eko azaroan aurkeztu zituen. Ez dugu egoera horretan ikusi nahi gure burua".

Era berean, aurrekontuak egiterakoan aurreko Udala gobernuak utzitako hainbat arazorekin aurkitu direla aipatu zuen Pablo Barrio alkateak. Hala nola, Hiribusaren legez kanpoko zerbitzua, Udaletxe berriaren 600.000 euroko gain-kostuari aurre egin beharra, Zabaleta auzoaren lokala, frontoi estalia eta parkea egiteko sinatutako 800.000 eurotako hitzarmena edo Atsokabar erresidentziako autobusaren zerbitzua bitan ordaintzen zela.

Hala eta guztiz ere, prentsaurrekoan adierazi zuten, 2011ean egindako gastuen kontentziarioi esker Udala gai izango da Aldundiari dagokion ordaintzeko. "Honek, eramandako gestioari esker, ez dio eragingo 2012ko aurrekontuari," aipatu zuen Estixuk.



Bildu, EAJ eta LOHP alderdietako zinegotziek PSE-EEK 2012. urteko aurrekontuei buruz adierazitakoari erantzun zioten.

Azkenik, Bildu, PNV eta Plataformak 2012ko aurrekontuak garatu ahal izateko eta onartzeko konpromisoa berretsi zuten.

Ez ohizko Udaltzarra

Bestalde, ostiral goizeko ez ohizko Udaltzarra azkarra izan zen, eta erabakiak eztabaida handirik gabe hartu ziren.

Hasteko Udalean komunikazio arloan lan egingo duen konfiantzazko karguaren soldata eta maila zehaztu ziren Bildu eta LOHP-aren bozkei esker, eta bestalde, Goiegi Iba-

rra eta Zabaleta-Berri eremuko kaleari Buztindegia izena eman zitzaion. Erabaki hau aho batez hartu zen.

Bestalde, Bilduk bi proposamen egin zituen Kutxabanken sorrerari buruz. Batetik, Kutxan ordezkari izateko beste udalekin elkartzeko eskatu zuen baina ez zen eskaera onartu. Bigarrenean, Kutxabankeko Administrazio eta kontseilua eraketari buruz bere desadostasuna agertzen zuten Bilduk. Proposamen hau PSE eta Bilduren aldeko botoekin onartu zen.

Bilduk salatu zuenez Kutxa-

bankeko kontseiluan ez da Gipuzkoako aniztasun politikoa islatzen. Ostiralean onartu zen proposamenaren arabera, egungo konfigurazioaren ondorioz, pribatizazioa handitu eta kutxan gizarte ekintza murriztuko dira.

Herrera zinegotzia gogoan

Honetaz gain, batzarra hasi baino lehen, Pablo Barrio alkateak udaltzaren izenean, duela ia 26 urte, Lasarte-Oriako lehenengo udaltzarreko kide izan zen Bittor Herreraren familiari bere doluinak adierazi zizkion. •

Atsokabar egoitzako langileak kexu CLECErekin

CLECE eta Lasarte-Oriako Udalak zaharren egoitza kudeatzeko akordioa urte betez luzatuko badute ere, bertako langileek arazoak konpondu gabe daudela salatu dute.

Sinatzean da Lasarte-Oriako Atsokabar egoitza kudeatzen duen CLECE enpresaren eta udalaren arteko akordio berria, beraz beste urtebetez luzatuko dute kontratua bi aldeek eta CLECE arduratuko da 2012an zaharren egoitzaz. Bien bitartean, egoitzako langileek ohar bat kaleratu dute euren arazak konpondu gabe jarraitzen dutela salatzeke.

Egoitzak azken urteotan Aldundiak ezarritako langile kopurua baino gehiago ditu, baina langileen ustez, "guztiz beharrezkoak zerbitzua behar bezala emateko". Langileek diotenez, Lasarte-Oriako egoitzan dauden pertsonen denetarik beharrik dituzte eta kasu askotan dedikazio osoa eskatzen dute. Kasu hauetarako,



Maiatzan langileek Udaletxearen aurrean egindako mobilizazioaetakoa bat.

eskatu bada ere, ez da egoitzan unitate berezirik, behar dutenei momentu oro zaintza ziurtatzen dien zerbitzurik.

Irauten duen afera

Egoera nahasia da langile, CLECE eta Udalaren artean. Langileen iritziz, lehen erruduna enpresa bera da, CLECE. Honek ez du langileen baja

edota oporraldiak betetzeko epe mugatu baterako kontrataziorik egiten, beraz, langileak dira kideen falta ahal bezala bete behar dutenak. Enpresak ez ditu hutsuneak betetzen Udalak zein Aldundiak eskatutako langile ratioetan mantendu behar direla argudiatuz.

Bigarren "erruduna" Udala dela diote langileek. Honek

gehiegizko gastuak hartzen du zerbitzua eta koste hauek arintzeko asotan, langile falta hori ez betetzeko agindua eman omen du. Udalak egoera ekonomiko estuak behartuta dela argudiatzen badu ere, langileentzat "aitzakia besterik ez da". "Aitona-amonek pairatuko dituzte erabaki eta murrizketa horien ondorioak. Hauei eskainitako zerbitzua nabarmen eskasagoa izango baita".

Egoera larria dela salatzen dute langileek euren lana bikoiztea ezinezkoa delako eta zerbitzuan nabari dela.

Kaleratzeak mehatxu

Enpresak aurreko astean aurkeztu zuen 2012rako lan egutegia eta langileen esanetan "bost langilek zazpi edo zortziren lana egin beharko dute". Langileengan lan karga larria eragingo du honek eta "argi dago ez dela Lan Arriskuen Prebentziarako legea beteko". Enpresak mehatxu egin die langileei, egutegia onartu ezean kalera-

tzeak egongo direla esanaz. Langileen ustez, "mehatxuekin subrogazioaren baldintzari muzin egiten dio eta udalak hala ere onartzen du".

2009. urteaz geroztik soldata izoztuta duten Atsokabar zaharren egoitzako langileek, udalaren inbertsioa medio, dirua zor zaila salatzen dute. Zerbitzu ona bermatu nahi dute langileek eta horregatik egin dituzte publiko euren aldarri eta salaketak.

PSE-EEren iritzia

Lasarte-Oriako alderdi sozialistak auziaren inguruan azaldu du, uztailetik dagoela langileei zor zaien dirua ordaintzeko partida udalaren esku.

2011ko uztailan ordaindu omen zuen Aldundiak, atzerapenarekin izan bazen ere, zor hau kitatzeko behar zen dirua: "Beraz, ulertezina da oraindik ordaintzeke egotea kontutan izanda udalak baduela dirua". •



Huskizunaz gain, laguntasun eta kiroltasun lezioak ere eman zituzten lasterkariak.



Irteeran guztiak nahi izaten dute leku onena hartu... Horretarako ukalondo, beso eta belau, dena erabili beharra dago.

Denak irabazle Nazioarteko Krosean

Mike Kigen keniarra eta Natharet Weldu eritrearra iritsi ziren lehenengo postuan helmugara, Donostiako 57. Krosean

H otza, euria eta lokatza izan dira aurtengo Nazioarteko Kroseko protagonista nagusiak. Etxean geratzeko moduko eguraldia egiten bazuen ere, kategoria ezberdinetan banatutako 545 atletek lortu zuten Hipodromo helmuga marra zeharkatzea. Txapelaldun handiak dira guztiak. Izan ere, termometroak lau gradu besterik ez zituen markatzen eguerdiko hamabietan eta euria present egon zen uneoro, nekaezin.

Aste osoan zehar botatako zaparraden ondorioz, zirkuitua

erabat lokatzuta geratu zen eta ikustekoa zen korrikalariak zeramatzen sufimendua, lohiatik hanka ezin atera, eman eta eman, metronik aurreratzen ez zuten tentsioarekin.

Bitxikeria gisa, aipagarri da, korrikalari bat baino gehiago sartu zela helmugan oinetakoa eskuan zuela.

Denbora kaxkarrak

Metereologiaren laguntzarik gabe, zaila da denbora onak egitea eta igandean ohi baino dezente motelago egin zuten lasterka denek. Esaterako,

aurreko urtean Kiprono Menjo keniarrak markatutako denbora baino zazpi minutu goitiak aritu zen Kigen herkiea.

Herritar bakarra

Aurtengo edizioan, Gonzalo Sukunza korrikalari nekaezina izan genuen lasarteoriatar bakarra.

Herritarrak 69. postuan amaitu zuen lasterketa, 47:45eko denbora eginda. Beste urte batzuetan baino ordezkarri gutxiago izan ditu aurtengoan Lasarte-Oriak Nazioarteko Krosean. •



Afrikarrak hotzez akabatten, bokadiloa eta motxilaren tradizioa, auto klasikoak...



Kigen eta Weldu aurtengo edizioko irabazleak helmuga marra zeharkatzen. Arroyo, Lasarte-Oria Bai!-ko garailea bigarren juniorretan.



Saillkapenak

Gizonezkoak (11.475 m)

- 1 Mike Kigen 38:08
- 2 Kiprono Conselus 38:33
- 3 Kiprono Menjo 38:37
- 4 Joshup Sweeney 38:43
- 5 Titus Mbishei 40:18

Emakumezkoak (6.975 m)

- 1 Natharet Weldu 27:18
- 2 Chemos Cheywa 27:28
- 3 Trihas Gebre 27:44
- 4 Priscah Jepleting 27:52
- 5 Marta Dominguez 27:53



Marta Dominguez, Nuria Fernandez edota Virginia Berasategi atletak afrikarrez inguratuta.



Gonzalo Sukunza herritarra ahalagin beteaz Buruntza mendia erdi elurtuta duela.

Garmendia OIKALAK

ZERTAZ MOZORROTUKO ZARA? txilabak eta mozorroak josten ditugu

Uistin kalea 11
Tel.: 943 376947
20160 LASARTE-ORIA

LASARTE-USURBIL INSTITUTUA bihe+

IES BHI LASARTE USURBIL

Zure aukera

- D.B.H.
- BATXILERRA

baikara

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

ANAIAK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA !

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386

ELEKTRIZITATE ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Q

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

IKASTETXEAK

Matrikula garaia EPAn eta ikastetxeetan

Helduen Hezkuntza iraunkorreko zentroak, EPAk, ikastaroetan izena emateko epea ireki du. Zentroak hizkuntzak, informatika, artea eta DBH titulua ateratzeko ikasketak eskaintzen ditu. Matrikula HHI-EPAko egoitzan, Osasun zentro berriko eraikineko 3. solairuan edo 943 366 608 zenbakian egin daiteke otsailaren 3ra arte.

Herriko ikastetxeetan ere gaur 2012-2013 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea zabaldu da. Horregatik, ikastetxeek ikasle berrien gurasoekin bilera informatiboak egin dituzte. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko bilera, Zumaburuko egoitzan izango da otsailaren 1ean, 17:30etan. Gurasoek otsailaren 10a arte izango dute aukera matrikula egiteko. •

SANTA AGEDA

Santa Ageda bezperan kantu eta eskeak

Ttakun kultur elkarteak, Xumela eta Bertso eskolako kideak Santa Ageda egunaren bezperan, otsailaren 4an, larunbatean, 18:30etik aurrera koplatan arituko dira herriko kaleetan barrena. Ondoren afaria egingo dute Sollane sagardotegian. Afarian parte hartu nahi dutenek Ttakun kultur elkarteko egoitzan, Geltoki kalea 4, edo telefonoz 943 371 448 zenbakian izena eman behar dute.

Zabaleta auzoko lagunak eskean aterako dira ere, hauek 18:00etan auzoan eta inguruko baserrietan. Ahotsak berotzen joateko, ostiralean otsailaren 3an entsegua egingo dute, 19:30ean Antonio Blas plazan. •

HITZALDIA

Familia harrera hizpide Villa Mirentxun

Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak Gipuzkoako Familia Hartzaileak batzen dituen "Beroa" elkartearen lan-kidetzarekin, familia harreraren inguruko hitzaldia antolatu du, "hazi, hezi eta bizitzeko aukera bat, HAZI, HEZI, BIZI" izenburupean.

Honakoa otsailaren 2an egingo da, ostegunean, 19:00ean Villa Mirentxuko areto nagusian. Izaskun Ugarte "Beroa" elkarteko lehendakaria, Leticia Martin familia eta bikote psikologo eta psikoterapeuta eta familia hartzaile bat izango dira hizlari lanetan. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, 943 245604 telefonora deituta edo asociacionberoa@hotmail.com helbidean egin dezake. •

MENDIA

Ostadar Saiarre mendiko sailaren bilera

Otsailaren 4ean 19:00etan Ostadarreko bulegoan bilera antolatu du Saiarre mendi sailak. Honetan taldearen funtzionamenduaren inguruan hitz egingo da eta besteak beste ekitaldi ezberdinak eta irteerak antolatzeke ekimenak aurrera ateratzeko proposamenak izango dira hizpide. Bilera irekia izango da eta antolatzaileek mendia gustuko duten herritarrak honetan parte hartzera animatu nahi ditu. •

ESKOLA KIROLA

Igeriketa topaketa larunbatean

Otsailaren 4ean, larunbatean, Eskola Kirolean parte hartzen duten LH3 eta LH4ko ikasleentzat igeriketa topaketa egingo da herriko kiroldegiko igerilekuan. LH4koen txanda 10:00etatik 11:15era izango da eta ondoren LH3koak 11:15etatik 12:30era izango dute euren tartea. •



Lan ederra egiten ari dira Buruntzaldea IKT-ko gazteak Neguko txapelketetan.

BURUNTZALDEA IKT

Igerilariak bikain Ligan

Espainiako eta Euskadiko txapelketarako gutxieneko bi marka egin zituzten Buruntzaldea IKTko gazteek

Buruntzaldea IKTko infantil, junior, promesa eta absolutuek bikain egin zuten igerian Ordizian, urtarrilaren 21ean, Ligako hirugarren jardunaldian. Izan ere, Espainiako eta Euskadiko txapelketarako bi txartel lortu zituzten, 13 marka pertsonal hobetu eta taldeko zazpi errekor hautsi.

Gaixotasunak eta abar direla medio, lehengo larunbatean, urtarrilaren 21ean, Buruntzaldea IKTk baja ugari izan zituen, baina, hala ere, Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, "lehiatu zirenak bikain ibili ziren eta oro har denek beren markak hobetzea lortu zuten".

Hauen artean, Iñigo Ibarburuk Espainiako Txapelketarako beste gutxieneko bat lortu zuen 200 tximeleta proban eta Mikel Soto Euskadiko Txapelketarako sailkatu zen 400 libre proban.

Gutxieneko markak

Mikel Sotok lan handia izan zuen larunbatean, lau probatan parte hartu baitzuen eta txapelketa honetan zuen helburu nagusia lortu zuen: Euskadiko Txapelketarako gutxieneko marka lortzea.

"Eta bai erraz lortu ere, 400 metro probako gutxiene-

ko marka 14 segundotan hobetzea lortu zuen, baita bere marka pertsonala minutu erdia baino gehiago hobetzea ere," azaldu du Buruntzaldea IKTko entrenatzaileak.

Era honetara, igeriketa taldeko infantil guztiak Neguko Euskadiko Txapelketan izango direla aipatu du Apeztegiak.

Honetaz gain, 50 libre frogan ere aritu zen Soto eta honetan ere bere marka pertsonala 5 segundotan hobetzea lortu zuen.

Era berean, Iñigo Ibarburuk eta Hartz Mitxelena 200 tximela probako Espainiako txapelketako gutxieneko markaren bila joan ziren Ordizian. Baina Ibarburu izan zen sailkapena lortu zuen bakarra.

Iñigo Ibarburuk "bikain igeri egin ondoren", bere marka pertsonala lau segundotan eta gutxieneko marka 2 segundotan hobetzea lortu zuen. Beraz, oraingoz, Iñigok Neguko Espainiako Txapelke-

tan 100 eta 200 tximeleta eta 50 libre frogak izango ditu.

Honetaz gain, Iñigok 50 metro bizkar frogan marka pertsonala "bikaina" egin zuen.

Bestalde, Hartz Mitxelena marka gutxienekotik segundo batera geratu zen 200 metro tximeleta proban. Hala ere, "berriro ere bere lehengo urteko marka egitea lortu zuen, eta proba honetan ez da erraza," azaldu digu entrenatzaileak.

Gainera, Hartzek 50 metro bizkar proban marka pertsonala lortu zuen.

Neskek ere bikain

Itsaso Tolosak igeri egin zituen proba guztietan marka pertsonalak egin zituen. Eta azpimarragarria izan zen 400 metro libreetan egindako lana, "bere denbora onena 15 segundotan haustea lortu zuen eta tartean bere 200 libreko marka pertsonala ere hobetu zuen".

Jone Vazquez ere bikain aritu zen 400 metro libreetan, "bere marka 6 segundotan hobetu zuen".

Azkenik, Naroa Goikoe-txeak 100 metro bular proban bere aurtengo marka berdindu zuen eta 50 metro libre proban marka pertsonala egin zuen. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitzeko gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

NAROA ARABIOTORRE artistaren MARGOen ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **azken egunak.**

Erakusketa

RUDY artistaren MARGOen ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **otsaila erdialdera arte.**

Igandea, 5

Zinea


HAUR ZINEA atalean, "HAPPY FEET 2" filma ikusgai izango da. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan. GAZTELANIAZ. Sarrera 3, 40 euro.**



Astelehena, 6

Zinea

Danok Kide elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, antolatutako URPEKO ZINE ZIKLOAREN lehenengo saioa. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan. Doan.**



Lucioren bizitza ezagutzen

"LUCIO" Urtubia anarkista ezagunaren bizitzan oinarritutako dokumentala izango da ikusgai ARGIA GAUEAN. Igeltsero ogibidez, Francoren aurkako ekintza mota gehienetan parte hartu zuen baina kolperik handiena hirurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdian eman zuen. 3.000 milioi pezetako iruzurra egin zion First National Bank (orain Citibank) etxeari dirua berak sinesten zuen kausetan inbertitzeko. Filmak Goya sarietarako izendapena jaso zuen.

OSTEGUNA, 2
21:30EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIA

Oharrak

Odola ateratzeko hileroko hitzordua

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan urtarriaren 30ean. Argi ordua aldatu baitute, arratsaldeko 17:30etik 20:30era izango da hemendik aurrera. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

1961ean jaiotako enafaria Txartelen

1961 urtean jaiotako herritarrek Txartel Txoko jatetxean enafaria antolatu dute otsailak 11ean, 21:00etan. Afariaren prezioa 30 eurotako da eta ordainketa aurretik egin behar da honako kontu korrante zenbakian, 2101 0092 15 0012963252 (Marta Garcia Ortiz). Izena emateko azken eguna otsailaren 6a izango da.

Gazteburuan Txuri-urdirera

Gazte klubeko gaztetxoak otsailaren 4an arratsaldean Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregira txangoa izango dute.

Prezioa 10 eurotako izango da Ttakuneko bazkideentzat, eta bazkide ez direnek 12 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea bulegoan edo telefonoz egin daiteke. Ordainketa bulegoan, Internet bidez edo Kutxan 2101 0048 25 0010089696 zenbakian egingo da.

Azken bi kasuetan, ordainagiriaren kopia bat aurkeztu behar da Ttakun kultur elkartearen edo aisia@ttakun.com helbidera bidali beharko litzaiteke.

Euskal Inauterietako konpartsa

Inauterietarako hilabete baino gutxiago geratzen da eta Euskal Inauterietako Konpartsak entseguak hasi ditu inauterietako iganderako, otsailaren 19rako guztia prest egon dadin.

Antolatzaileek parte hartu nahi duen herritar orori dei egingo diote. Entseguak astearte eta ostegunetan dira arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara Landaberri BHLren egoitzan.

Udalari proposamenak luzatzeko aukera

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz, Geltoki kalea 4.



Logo Lehiaketa

Kukuka antzerki eta dantza eskolako logoa aurkeztzeko lehiaketa martxan jarri du elkarte honek.

Parte hartu nahi duen pertsona orori irekia dago, baina gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztu behar ditu. Hauek diseinu grafikoan ohizkoak diren programetan eginak izan behar dira. Eta nahi izanez gero, azalpen labur bat ere aurkeztu daiteke.

LANAK DIN A-4ko kartazal batean aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira: izen-abizenak, helbidea elektronikoa eta telefona.

LANAK Lasarte Oriako kultur-etxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00



Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Eskutitza

Gipuzkoa desberdin baten alde!

Gipuzkoa ez da lurralde eremu handia, baina azken urteotan kontrolrik gabe eta modu arduragabeen ustiatua izan da gure zonaldea.

Desarrollismo jasangaitz bati jarraituz, herritarren beharrak asetzera baino, interes partikularrak asetzera bideraturiko politikak modu basatian erasotu dute ingurugiroa.

Gaur egun horren adibide garbia diren hainbat proiektu ditugu: Abiadura Handiko Trena, Erraustegia, Pasaiako Kanpo Portua... Hauek ordea, ez dira gipuzkoarrok behar ditugun azpiegiturak.

Horregatik, otsailaren 4rako, manifestazioa deitu dute gai honetan konprometituta dauden hainbat eragile sozialek "Gipuzkoa desberdin baten alde! Azpiegitura lan handiak gelditu!" lelopean. Donostiako Boulevard-etik abiatuko da manifestazioa larunbat arratsaldeko 17:30etan, amalurra errespetatuz, gipuzkoarrok beharretara bideratutako eredu sozial bat aldarrikatzeko.

Hori dela eta, otsailaren 1ean, asteazkenez, Akelarre Gazte Kolektibokook hitzaldia antolatu dugu Villa

Mirentxuko hitzaldi aretoan arratsaldeko 19:00etan.

Bertan, aurrez aipatutako proiektu handien xehetasunak azalduko ditugu eta Donostiako manifestazioaren nondik norakoak ere izango ditugu mintzagai.

Beraz, herritar oro eta batez ere gazte jendea animatu nahi dugu eskainiko dugun hitzaldira gerturatu dadin. Era berean, larunbaterako manifestaziora joateko deialdia luzatzen diegu herritar guztiei.

**Akelarre
Gazte Kolektiboa**

Landaberri

ikastola-institutua

MATRIKULAZIOA urtarrilaren 30etik otsailaren 10era



**Zeure herrian bertan,
euskaraz**

HEZKUNTZA PROIEKTU BATERATUA ETA GAURKOTUA, ESKOLA KOMUNITATEAK ADOSTUA



- 2 urtetik 16 urte bitartekoa
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituena
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza:
 - ingelesa 4 urtetik aurrera
 - frantsesa aukeran, DBHko 1.mailatik aurrera
- Teknologia berrien erabilera txiki-txikitatik. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietatik sareko konexioa
- Behar berezia duten ikasleentzat:
 - gela egokituak, laguntzako irakasleak, aholkulariak eta orientatzaileak
- Kirola, antzerkia, dantza eta bestelako eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio-zerbitzua
- Goizeko 08:00etatik 09:00etara harrera zerbitzua.
- Jangela zerbitzuaren kudeaketa.

Bilerak:

- **DBHkoak** otsailaren 1ean 18:00etan Pintore kalea 2an
- **HH eta LHkoak** urtarrilaren 26an 15:15ean Garaikoetxea eraikinean

Matrikulatzeko tokiak:

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikulak. Orduetgia: 09:00etatik 13:00etara
Garaikoetxea eraikinean • Tel.: 943 37 06 62 • landazuzendaritza@gmail.com

DBH-KO matrikulak

Pintore kalea 2an • Tel.: 943 37 28 90 • landabhi@euskaltel.net
Orduetgia: astelehenetik ostiralera 08:30etatik 11:30etara
astelehena, asteartea eta ostegunean arratsalde 14:30etatik 16:00etara